| | |
|---|---|
| **JAKINARAZPENA1/2012, URRIAREN 11KOA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO LURRALDE ANTOLAMENDURAKO BATZORDEKO PRESIDENTEARENA; HONEN BIDEZ, EGOKITU EGITEN DA BATZORDE HORREK TXOSTENAK EGITEKO PLANGINTZA-ESPEDIENTEEN INGURUAN UDALEK BIDALI BEHAR DUTEN DOKUMENTAZIOA** | **COMUNICACIÓN Nº 1/2012, DE 11 DE OCTUBRE, DE LA PRESIDENTA DE LA COMISIÓN DE ORDENACIÓN DEL TERRITORIO DEL PAÍS VASCO A LOS MUNICIPIOS DE LA C.A.V., POR LA QUE SE ADECÚA LA DOCUMENTACIÓN QUE DEBEN REMITIR LOS AYUNTAMIENTOS RESPECTO DE LOS EXPEDIENTES DE PLANEAMIENTO A INFORMAR POR LA MENCIONADA COMISIÓN** |
| Ekonomia-krisiaren egungo egoeran, kostuak murrizteko neurriak hartu behar dituzte herri-administrazioek, horren ondorioz ematen dituzten zerbitzuen kalitatea murriztu gabe. | La actual situación de crisis económica exige que las Administraciones Públicas adopten medidas de reducción de costes sin que ello, conlleve una minoración en la calidad de los servicios que las mismas prestan. |
| Alde horretatik, EAELAB Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeak uste du batzordearen txostena behar duten hirigintza-plangintzako espedienteek eduki behar duten dokumentazioa egokitu egin behar dela, udalei kostuak murrizteko, horren ondorioz bidalitako informazioaren kalitatea urritu gabe. | En este sentido, la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco (COTPV) estima que la documentación que deben contener los expedientes de planeamiento urbanístico sujetos a informe de la propia Comisión, debe adecuarse con el fin de reducir costes a los ayuntamientos, sin que ello, implique menoscabo en la calidad de la información remitida. |
| Hori dela eta, EAELABk uste du, alde batetik, **ez dela beharrezkoa** udalek batzordera bidaltzea ez aurrerapen-agiria (halakorik dagoenean), ez hasierako onespenaren agiria, eta ez IIBE/Jasangarritasunaren txostena, **paperean**, lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2/2006 Legeak xedatzen duen nahitaezko txostenaren xede den hirigintza-plangintzako espedienteetatik. Hortaz, **behin behinekoz onartutako agiria bakarrik** bidaliko da paperean. | Por ello, la COTPV considera, por un lado, que **no es necesario** que los Ayuntamientos envíen a la Comisión ni el documento de avance (cuando exista) ni el documento de aprobación inicial, ni el ECIA/Informe de Sostenibilidad **en formato papel**, de los expedientes de planeamiento urbanístico objeto del informe preceptivo según dispone la Ley 2/2006, de Suelo y Urbanismo. Por tanto, **únicamente** se remitirá en formato papel **el documento aprobado provisionalmente**. |
| Beste alde batetik, udalek dokumentazio grafikoa bidali beharko dute, **bai PDF formatuan eta bai formatu editagarrian (SHAPE edo, horrelakorik ezean, DWG edo DXF)**, batzordearen idazkaritzara, Euskal Autonomia Erkidegoko Geografia Informazioaren Sisteman sartzeko. | Por otro lado, los Ayuntamientos deberán remitir la documentación gráfica **tanto en formato PDF como en formato editable (SHAPE o, en su defecto, DWG o DXF)** a la Secretaría de la Comisión, con el fin de incorporarla al Sistema de Información Geográfica de la Comunidad Aútonoma del País Vasco. |
| Funtsean, jakinarazpen hau jasotzen denetik, espedienteen dokumentazio hau bidaliko da Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordera: | En conclusión, a partir de la notificación de la presente Comunicación se enviará a la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco, la siguiente documentación por cada expediente: |
| -. ziurtatutako bi (2) kopia, plana bideratzeko administrazio-dosierrarenak. | - dos (2) copias adveradas del expediente administrativo de tramitación del Plan. |

| | |
|---|---|
| -. Behin behinekoz onartutako agiri teknikoaren bi (2) ale, osorik, behar bezala bideratuta, **paperean**. | - dos (2) ejemplares completos, debidamente diligenciados, **en formato papel**, del documento técnico aprobado provisionalmente. |
| -. Behin behinekoz onartutako agiri teknikoaren bi (2) ale, euskarri informatikoan **(bai PDF formatuan eta bai formatu editagarrian -SHAPE edo, horrelakorik ezean, DWG edo DXF-)**. | - dos (2) ejemplares en soporte informático **(tanto en formato PDF como en formato editable -SHAPE o, en su defecto, DWG o DXF-)**, del documento técnico aprobado provisionalmente. |
| -. Aurrerapena eta hasierako onespenaren bi (2) ale, euskarri informatikoan **(PDF formatuan)**. | -. dos (2) ejemplares en soporte informático **(formato PDF)**, de los documentos de avance y aprobación inicial. |
| Azkenik, jakinarazpen honi atxikita, **eranskinean**, espedientea osatu behar duten agirien zerrenda jasotzen duen laburpen-orria doa, osatua eta eguneratua. | Por último, se adjunta a esta Comunicación, como **Anexo**, una hoja-resumen en la que se recoge la relación de documentos que deben conformar el expediente, de forma completa y actualizada |
| Zure laguntzagatik aldez aurretik eskerrak eman eta adeitasunez agurtzen zaitut. | Agradeciéndoles de antemano su colaboración, se despide atentamente, |
| Gasteizen, 2012ko urriaren 11n. | En Vitoria-Gasteiz, a 11 de octubre de 2012. |

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO LURRALDE ANTOLAMENDURAKO BATZORDEAREN PRESIDENTEA
LA PRESIDENTA DE LA COMISIÓN DE ORDENACIÓN DEL TERRITORIO DEL PAÍS VASCO

Sin. / Fdo.: Maria del Pilar UNZALU PEREZ DE EULATE

# ERANSKINA

## 1.- EAELABRA BIDALTZEKO ESPEDIENTEAK OSATU BEHAR DITUZTEN AGIRIEN ZERRENDA OSOA

### A) ADMINISTRAZIO-AGIRIAK

**1.- Formulazioa eta aurretiazko faseak (lurzoruari eta hirigintzari buruzko Legearen 90.1 eta 2. artikuluak)**

| Agiria | |
|---|---|
| **1.1 agiria.-** | Plan nagusia formulatu eta idazteko udal-akordioa eta herritarrek parte hartzeko programa bat (108. art.). |
| **1.2 agiria.-** | Babes zibilaren, ingurumenaren, kultura-ondarearen eta ingurune naturalaren gaineko eskumenak dituzten Eusko Jaurlaritzako eta dagokion foru-aldundiko organoei egindako eskabidea: dauden arriskuen gaineko informazioarena eta ingurumenean, kultura-ondarearen babesean eta ingurune naturalean errespetatu behar diren baldintzatzaileena. |
| **1.3 agiria.-** | *Arabako udalek*, beren udalerriko administrazio-batzarrei egindako txosten-eskabidea: kontzejuaren titulartasuna duten zerbitzuak eta ondasunak antolatzean kontuan izan beharreko irizpideen ingurukoa. |

**2.- Aurrerapen-agiriaren fasea (lurzoruari eta hirigintzari buruzko Legearen 90.3 eta 4. artikuluak)**

| Agiria | |
|---|---|
| **2.1 agiria.-** | Aurrerapena jendaurrean jartzeko udal-akordioa. |
| **2.2 agiria.-** | Lurralde historikoaren aldizkarian jendaurrean jartzeko iragarkia. |
| **2.3 agiria.-** | Jendaurreko informazioaren iragarkia, lurraldean zabalkunderik handiena du(t)en egunkari(et)an. |
| **2.4 agiria.-** | Udal mugakideei aurrerapena bidali izanaren idatzia. |
| **2.5 agiria.-** | *Arabako udalerrien* kasuan, administrazio-batzarrei aurrerapena bidali izanaren idatzia. |
| **2.6 agiria.-** | Plan nagusia idazteko oinarri izango diren irizpideak eta helburuak onartzeko udal-akordioa. |
| **2.7 agiria.-** | Ingurumenaren aldagaia bideratzean, erreferentziako agiria eta aurretiazko txostena bidali beharko dira, eta, bidali ezean, horien eskabidea. |
| **2.8 agiria.-** | Hala dagokionean, herri-administrazio eskudunen txosten sektorialak, bereziki itsasertzenak (Itsasertzen Legeko 112. eta 117. artikuluak) eta aireportuenak (2591/1988 Errege Dekretuaren 2. xedapen gehigarria), eta, nolanahi ere, horien eskabideak. |

**3.- Hasierako onespenaren fasea (lurzoruari eta hirigintzari buruzko Legearen 90.5 artikulua)**

| Agiria | |
|---|---|
| **3.1 agiria.-** | Hasierako onespenaren osoko akordioa. |
| **3.2 agiria.-** | Lurralde historikoaren aldizkarian jendaurrean jartzeko iragarkia. |
| **3.3 agiria.-** | Jendaurreko informazioaren iragarkia, lurraldean zabalkunderik handiena du(t)en egunkari(et)an. |
| **3.4 agiria.-** | Udal-erroldaren zerbitzuak emandako biztanleria-ziurtagiria |
| **3.5 agiria.-** | Eskumen sektorialak dituzten herri-administrazioen hasierako onespenaren jakinarazpena. |
| **3.6 agiria.-** | *Arabako udalerrien* kasuan, administrazio-batzarrei bidalitako hasierako onespenaren jakinarazpena. |
| **3.7 agiria.-** | Hasierako onespenari egindako alegazioen, iradokizunen eta erreklamazioen idatziak. |
| **3.8 agiria.-** | Planteatutako alegazioen ebazpen-txostena. |
| **3.9 agiria.-** | Hala dagokionean, eskumena duten herri-administrazioen txosten sektorialak –bereziki hauenak: errepideak, mendiak, nekazaritza, defentsa, telekomunikazioak, RENFE, Euskotren, etab.–; eta horrelakorik eman ez bada, horien eskabideak, egokitzen denean. |
| **3.10 agiria.-** | *Ukitutako udalek*, Urdaibaiko Biosferaren Erreserbako Patronatuaren txostena; eta horrelakorik eman ez bada, horren eskabidea. (5/1989 Legea, Urdaibaiko Biosfera-Gebenaldea Babestu eta Antolatzeari buruzkoa) |

**4.- Behin-behineko onespenaren fasea**

| Agiria | |
|---|---|
| **4.1 agiria.-** | Behin-behineko onespenaren osoko akordioa. |
| **4.2 agiria.-** | Udal Plangintzako Aholku Batzordearen txostena. |
| **4.3 agiria.-** | 4.2 agiria aintzat hartu den edo ez dioen udal-ziurtagiria. |

| | |
|---|---|
| **4.4 agiria.-** | 4.2 agirian jasotako iradokizunak edo gomendioak aintzat ez hartzeko erantzuna. |
| **4.5 agiria.-** | *Arabako udalerri*en kasuan, administrazio-batzarrei bidalitako behin-behineko onespenaren jakinarazpena. |
| **4.6 agiria.-** | Ingurumen Inpaktuaren Baterako Ebaluazioaren behin betiko txostenaren eskabidea (IIBE) / Ingurumen Memoria. |

## B) DOKUMENTAZIO TEKNIKOA

| Agiria |
|---|
| **B.1 agiria.-** Aurrerapen-agiria. **(PDFn bakarrik)** |
| **B.2 agiria.-** Hasierako onespenaren agiria. **(PDFn bakarrik)** |
| **B.3 agiria.-** Behin-behineko onespenaren agiria. |
| **B.4 agiria.-** Ingurumen Inpaktuaren Baterako Ebaluazioko azterlana / Ingurumen Jasangarritasunaren Txostena. |

# ANEXO

## 1.- RELACIÓN COMPLETA DE DOCUMENTOS QUE DEBEN FORMAR PARTE DE LOS EXPEDIENTES A REMITIR A LA COTPV

### A) DOCUMENTACIÓN ADMINISTRATIVA

#### 1.- Formulación y fases previas (art. 90.1 y 2 LSU)

| | Documento |
|---|---|
| **Doc. 1.1.-** | Acuerdo municipal para la formulación y redacción del plan general acompañado de un programa de participación ciudadana (art. 108). |
| **Doc. 1.2.-** | Solicitud a los órganos del Gobierno Vasco y de la Diputación Foral correspondiente con competencias sobre protección civil, el medio ambiente, el patrimonio cultural y el medio natural de información sobre riesgos existentes y los condicionantes medioambientales, de protección del patrimonio cultural y del medio natural que deban ser respetados. |
| **Doc. 1.3.-** | *Ayuntamientos Alaveses*, solicitud de informe a las juntas administrativas de su término municipal, en relación con los criterios a tener en cuenta en la ordenación de los servicios y bienes de titularidad concejil. |

#### 2.- Fase del documento de Avance (art. 90.3 y 4 LSU)

| | Documento |
|---|---|
| **Doc. 2.1.-** | Acuerdo municipal de la exposición pública del avance. |
| **Doc. 2.2.-** | Anuncio de la exposición pública en el boletín del territorio histórico. |
| **Doc. 2.3.-** | Anuncio de la exposición pública en el diario o diarios de mayor difusión del territorio. |
| **Doc. 2.4.-** | Escrito de remisión del avance a los ayuntamientos colindantes. |
| **Doc. 2.5.-** | En el caso de los *municipios alaveses*, escrito de remisión del avance a las juntas administrativas. |
| **Doc. 2.6.-** | Acuerdo municipal de adopción de criterios y objetivos que servirán de base para la redacción del plan general. |
| **Doc. 2.7.-** | Respecto de la tramitación de la variable ambiental, deberán remitirse el correspondiente documento de referencia e informe preliminar y, caso de su no emisión, la solicitud de los mismos. |
| **Doc. 2.8.-** | En su caso, informes sectoriales de las administraciones públicas competentes, en especial de Costas (Arts. 112 y 117 de la Ley de Costas) y Aeropuertos (DA 2ª del RD 2591/1988) y, en cualquier caso, la solicitud de los mismos. |

#### 3.- Fase de aprobación inicial (art. 90.5 LSU)

| | Documento |
|---|---|
| **Doc. 3.1.-** | Acuerdo plenario de aprobación inicial. |
| **Doc. 3.2.-** | Anuncio de la exposición pública en el boletín del territorio histórico. |
| **Doc. 3.3.-** | Anuncio de la exposición pública en el diario o diarios de mayor difusión del territorio. |
| **Doc. 3.4.-** | Certificado de población emitido por el servicio de padrón municipal |
| **Doc. 3.5.-** | Notificación de la aprobación inicial a las administraciones públicas con competencias sectoriales. |
| **Doc. 3.6.-** | En el caso de los *municipios alaveses*, notificación de la aprobación inicial a las juntas administrativas. |
| **Doc. 3.7.-** | Escritos de alegaciones, sugerencias y reclamaciones a la aprobación inicial. |
| **Doc. 3.8.-** | Informe de resolución de las alegaciones planteadas. |
| **Doc. 3.9.-** | En su caso, informes sectoriales de las administraciones públicas competentes, en especial de Carreteras, Montes, Agricultura, Defensa, Telecomunicaciones, RENFE, Euskotren, etc. y en caso de su no emisión, la solicitud de los mismos si procede. |
| **Doc. 3.10.-** | *Ayuntamientos afectados*, informe del Patronato de la Reserva de la Biosfera de Urdaibai y en caso de su no emisión, la solicitud del mismo. (Ley 5/1989, de Protección y Ordenación de la Reserva de la Biosfera de Urdaibai) |

#### 4.- Fase de aprobación provisional

| | Documento |
|---|---|
| **Doc. 4.1.-** | Acuerdo plenario de aprobación provisional. |
| **Doc. 4.2.-** | Informe del Consejo Asesor de Planeamiento. |
| **Doc. 4.3.-** | Certificación municipal de toma o no en consideración del Doc. 4.2. |
| **Doc. 4.4.-** | Contestación para la no toma en consideración de las sugerencias o recomendaciones formuladas por el Doc. 4.2. |
| **Doc. 4.5.-** | En el caso de los *municipios alaveses*, notificación de la aprobación provisional a las juntas administrativas. |

EUSKAL HERRIKO LURRALDE ANTOLAKETAREN BATZORDEA
COMISION DE ORDENACION DEL TERRITORIO DEL PAIS VASCO

| | |
|---|---|
| **Doc. 4.6.-** | Solicitud del informe definitivo de Evaluación Conjunta de Impacto Ambiental (ECIA)/ Memoria Ambiental. |

## B) DOCUMENTACIÓN TÉCNICA

| Documento |
|---|
| **Doc. B.1.-** Documento de Avance. **(Sólo en PDF)** |
| **Doc. B.2.-** Documento de aprobación inicial. **(Sólo en PDF)** |
| **Doc. B.3.-** Documento de aprobación provisional. |
| **Doc. B.4.-** Estudio de Evaluación Conjunta de Impacto Ambiental / Informe de Sostenibilidad Ambiental. |